


2004. urtean, Estatuko administrazioek 1.570 milioi euroko superabita izan zuten Euskal Autonomia Erkidegoan; euskal administrazioek, aldiz, 83 milioikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen superabita euskal BPGaren %3,1 izan zen

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri administrazioek (euskal administrazioak eta EAEn kokatuta dauden Estatuko administrazioa eta Gizarte Segurantzak), 2004. urtean, 1.653 milioi euroko superabita izan zuten finantzatzeko ahalmenari dagokionez, hau da, BPGaren %3,1. 2000 eta 2003 urteen arteko aldiaren ratio hori uzkuritu egin da: 2000. urtean %5,7koa zen eta 2003an %2,9koa. Aitzitik, 2004. urtean bi hamarren igo zen.

Espainia eta Europar Batasunarekiko ezberdintasunak nabariak dira oraindik, zeinu negatibodunak gainera. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri administrazioek superabita izan dute nagusi eta 2004. urtean gorakada txiki bat ere bai. Espainiako herri administrazioak zero defizitera heldu ziren 2003. urtean, baina 2004an %-0,1eko saldo negatiboa izan zuten. 25 kideek osatzen duten Europar Batasuneko herri administrazioen defizita aurreko urtekoa baino 4 hamarren txikiagoa da; beraz, 2004. urtean %-2,6ko saldo defizitariora izan zuten.

1.- grafikoa: Herri administrazioen finantzatzeko ahalmenaren(+) edo beharizanaren(-) bilakaera (BPGaren %)



Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen herri administrazioen superabita bitan banatzen da 2004. urtean: batetik 1.219 milioi euro EAEn kokatuta dagoen Estatuaren administrazioarenak eta 351 milioi EAEn kokatuta dagoen Estatuaren Gizarte Segurantzarenak. Hau da, Estatuaren eskumenekoak diren bi administrazioen artean Euskadik 1.570 milioi euroko superabita dauka, euskal BPGaren %2,9.

Euskal administrazioek superabit txikiagoa izan dute, 83 milioi eurokoa, 2003. urtean lortutako 147 milioioko defizitari gutxienez zeinua aldatuz. Horrela, superabita BPGaren %0,2koa da 2004. urtean eta aurreko urtean %-0,3koa izan zen. Hain zuzen ere, Gipuzkoako (70 milioi) eta Arabako (48 milioi) saldo positiboak esker lortu da superabita, Eusko Jaurlaritzak (-25 milioi) eta Bizkaia (-10 milioi) saldo defizitarioak izan baitituzte.

1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantzatzeko ahalmena (+) edo beharria (-). Mila eurotan. 2004. urtea

Unitatea: mila euro

	1	2	3	4
	Finantzazkoak ez diren baliabideak	Finantzazkoak ez diren erabilera	Aurrezki garbia	Finantzatzeko ahal.(+) eta beh.(-)
Herri administrazioak	19.186.102	17.532.780	3.160.525	1.653.322
EAEn dauden Estatuak administrazioa+Gizarte Segurantzak	8.735.958	7.165.427	1.721.742	1.570.531
EAEn dagoen Estatuak administrazioa	2.373.752	1.154.887	1.321.324	1.218.865
EAEn dagoen Gizarte Segurantzak (**)	6.362.206	6.010.540	400.418	351.666
EAEko administrazioak (*)	12.092.553	12.009.762	1.438.783	82.791
Eusko Jaurlaritza	6.844.206	6.869.422	546.933	-25.216
Araba	1.957.825	1.909.762	137.842	48.063
Bizkaia	6.037.935	6.048.376	360.569	-10.441
Gipuzkoa	3.911.621	3.841.236	393.439	70.385

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza eta sozietate publiko batzuk Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. autonomoak eta sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

(**) Gizarte Segurantzaren barruan sartzen dira: GSDO, GSIN, IGI, EIN, LI eta LG mutuak, soldaten berme-funtsa, mutualitateak

Iturria: Eustat

2000 eta 2004 urteen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazio guztiek %21,5 gehitu dituzte finantzazkoak ez diren baliabideak eta %31 finantzazkoak ez diren gastuak. Beraz, finantzatzeko ahalmena 2000. urteko 2.404 milioi euroetatik 2004ko 1.653 milioi euroetara jaitsi da; hori gorabehera, azken ekitaldi horretan saldoa %16,5 gehitu da.

Euskal administrazioen finantzazkoak ez diren baliabideak bost urtetan %21 gehitu ziren eta finantzazkoak ez diren gastuak %29,5. Horrela, finantzatzeko ahalmena jaitsi egin da: 2000. urtean 720 milioi eurokoa zen eta 2004an 82 milioiokoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aurrezki garbia jaitsi egin da, 2000. urteko 3.792 milioi eurotik 2004ko 3.160 milioi eurora; hau da, %16,7 murriztu da. Euskal herri administrazioen aurrezki garbia %23,1 jaitsi da eta Estatuko herri administrazioen aurrezko garbia %10,4 uzkuritu da.

2. taula: Herri administrazioek azken eskarian duten partaidetza. Euskal Autonomia Erkidegoa (mila eurotan). 2000-2004

	unitatea: mila euro									
	2000	%	2001	%	2002	%	2003	%	2004	%
Azken kontsumoko gastua	30.489.986	100,0	32.594.367	100,0	34.372.086	100,0	36.867.075	100,0	39.821.096	100,0
Herri adm.en azken kontsum. gastua	5.866.817	19,2	6.574.732	20,2	6.963.085	20,3	7.551.277	20,5	8.016.736	20,1
Kapital-eraketa gordina	10.468.359	100,0	11.200.922	100,0	12.218.713	100,0	13.416.770	100,0	14.848.714	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.227.090	11,7	1.327.166	11,8	1.437.383	11,8	1.508.409	11,2	1.493.468	10,1
Barne-eskaria	41.407.486	100,0	44.325.790	100,0	47.009.893	100,0	50.497.871	100,0	55.056.113	100,0
Barne-eskari publikoa	7.093.907	17,1	7.901.898	17,8	8.400.468	17,9	9.059.686	17,9	9.510.204	17,3

Iturria: Eustat

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-eskari publikoa barne-eskari osoaren %17,3 izan da.

Herri administrazioek azken kontsumoan egindako gastua Euskal Autonomia Erkidegoan azken kontsumoan egindako gastuaren %20,1 izan da 2004. urtean, hau da, 2000. urtean baino bederatzi hamarren gehiago eta 2003an baino lau hamarren gutxiago.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek egindako inbertsioak 2000. urteaz gero gutxitzen joan dira. Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren kapital-eraketa gordinen izandako partaidetza egonkor mantendu zen 2000-2002 aldian, 2003. urtean pixka bat gutxitu zen eta 2004an gehiago gutxitu zen.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Clara Ramos Hernández

Tel:+34-945-01 75 97 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>